

Gu **Nezude** taldea gara eta *La Salle Berrozpe* ikastetxeko batxilergo bigarren mailako Leire Fernandez, Judith Iturrioz, Ander Julián eta Maddi Olazabal ikasleok osatzen dugu.



Gure kasuan ekintza berritzaile bat prestatu dugu, birmoldatutako arropa eskaintzen. Hau da, arropa zakarretara joan ordeztasun eta beste erabilpen bat emango diogu. Behar adina arropa lortzen ez badugu konponketa zerbitzuak eskaintzen ditugu gure ideia aurrera eramanean ahal izateko.

Gure helburu nagusia arropa birziklatzea da, gaur egungo kontsumismoa ekiditeko.

Bestalde, multinazionalekin harremanetan jarriko gara akordio batera iritsi ahal izateko. Hau da, guk akatsen bat duen edozein arropa prezio merkeagoan erosiko genieke.

Horretarako, bi langile kontratatuko genituzke. Lehenengoa modista, arropa birmoldatzeaz eta konpontzeaz arduratuko dena eta bigarrena unibertsitate edota gradurenbat egiten ari den edonork, praktikan geure lanean ariko dena.

Gure produktua penintsulako beste edonork erosi nahi izango balu gure webgunean erostearekin nahikoa izango luke. Kasu honetan ordea, bezeroak gehiago ordaindu beharko luke, hau da bidalketa gastuak. Baina helbidea geure dendatik gertu badago perimetro bat kontuan harturik noski, ez zaio bidalketa gasturik kobratuko bizikleta bidez egingo genioke bidalketa.



Guk eraldatutako arropa, bi sexuetarako egokia izango da, hau da, “unisex” izaten saiatuko gara. Eskaintzen ditugun produktuak, modarekin erlazioa nahi duen edonorentzat eta diru gutxi gastatu nahi dutenentzat egokia izan daiteke.